***TXANTON GOIRIAREN OLERKIAK:***

## Biotz-negarra

Olerti (1984, 1983) 272

Aberritik urrun bizitza dan latza!
Naigabe zorrotzez zaurituturik natza.
Aberri-zerua ezin dot idoro,
neke-zoritxarra biurtu iat oro,
Aberritik urrun dana eriotza.
Dana da negarra, dana itun-otza.

Igeska bai iabilt aspaldiz alaia,
biotz-barrenean daroat nekia.
Negu-baltz-illuna da nire barnean,
ta argirik ez dago nire biotzean.
Gogo gaxo onek zer daukan ez dakit,
aspaldiz baiñan, ai, itun-goibel daurkit.
Gaixo dot gorputza, gogoa areago:
zer dodan ez dakit, baiña goibel nago.

Ez dor gura ezer, ez dor ezer maite;
min-kate astunak estututzen naute;
ez dot nai laztanik, ez maitetasunik,
ez dot nai lorerik, ezta itz bigunik;
gabeko intzan antzo illunpez gogoa...
biotzean ez dot len neban beroa.
Dana uskeria, otz-utsa ludia,
negarra dot lagun, bera pozkaria.

Aberritik urrun bizitza dan latza!
Naigabe zorrotzez zaurituturik natza.
Itun dot gogoa, beti negarretan.
Aberri maitean beti amesetan.

Ene gogo leuna: itxi negarrari,
atzerri-bidean abil ameslari.

Gaztea naz eta ez dot nik il gura,
eriotzeak, ai, damosten bildurra;
bizitza gura dot, bera bai leguna;
maite ditu anai-arreba samurrak,
maite dauz lilluraz guraso tximurrak.

## Euskeraren malkoak

Olerti (1982, 1982) 60-63

Zergaitik dagoz goiz eder ontan zure begiak
negar ta malkoz bustirik?
Zergaitik zagoz miñak artuta izadi dana
baitago pozez alairik?

Esan EUZKERA, esan bai arren, zergaitik negar
dagien zure begiak;
azaldu niri zure samiña, esan zergaitik
diran zure min-nekiak.
Nik euzkeldunei esango dautset zure barrengo
samin-oiñaze zorrotza;
t'euzkeldun onak adituko du bere biotzan
zure deadar mingotza.

Udazkena da euzko semea, neretzat beti,
beti bizi naz negarrez;
neure semeak nigaz aztuta euren erritik
jaurti ninduen indarrez.

Nire biotzan ez dago pozik, ez zorionik,
iges egin du alaiak;
ta orregaitik nago gaur emen eriotz-miñez
malkoz busturik begiak.

Udabarriko alaitasunak ezin iñola
alaitu nire biotza;
nire barruan aspaldi ontan negua da-ta...
ezin da urtu izotza.

Gau t'egun dakart aspaldi ontan biotz-barnean
kezka latzezko ekaitza;
biotz gaxo au arrak jota lez zatituta dot
itxasoak lez arkaitza.

Kupitu arren euzko semea, kupitu nitaz,
beira nire min zorrotza;
kupitu nitaz bestela laster dator nire gain
bat-batean eriotza.

Zure besarkaz urtu semea bular-barruan
dodan neguko izotza;
kupitu nitaz, izan erruki, bestela atera
nire barrendik biotza.

«Jagi eta abil», euzko semea, aterik-ate,
anaiak nitzat batutzen;
ekin gogotsu erri danetan euzkotar danak
nigana beingoz ekartzen.

Ordun bai seme, etorriko jat barriro laster
lengo udabarri alaia;
biotz-barrendik aienduko jat negu illuna,
piztu barriro argia.

Orduan laster agertuko jat oso-osoan
alaitasuna barnean;
t'ikusiko dot izadi oro irri-barreka
alai ta pozez betean.

Oartuko dot gau argietan oztin ta garbi,
lilluragarri ortzia;
eta mendia lore ederrez, zitori zuriz,
apaiñez dana josia.

Oartuko dot zelan euzkia agertu oi dan
mendi-ostean goizean;
zelan diztira ederrak galduz estaldu oi dan
geldi-geldiro gabean.

Oartuko dot illargi eder gau-erregiña
izar diztikor-tartian;
eta bere izpi diztiratsuak anor zabalduz
argi egiten ludian.

Ikusiko dot zelan baso ta zelai-muñoak
agertzen diran apainki;
zelan zugatzak apurka-apurka osto orlegiz
jantzi ein diran poliki.

Oartuko dot zugatz-gaiñean txorro-txioka
alai abesten txoria;
t'ega-egaka lorerik-lore janari-billa
mitxeletatxu alaia.

Adituko dot artzai jatorra adarra joaz
santzo-txistuka mendian,
t'ardi apalak zelan dabiltzen alai be-beka
bedarra iaten iarrean.

Ilkusko ditut neska-mutillak jai-egunetan
erri-zelaian jolasten,
ume-taldeak bide-ertzean alai ta pozik
kanta gozoak abesten.

Ikusko ditut andre-gizonak bake aundian
arto ereiten soloan,
atzo-agurek gentz ederrean etxe-aurrean
pozarren karta-jokoan.

Oartuko dot amona zarra goiz-illuntzetan
abots biguñez abesten;
eta ondoan bere illobatxu txiki-polita
seaskatxoan lo eiten.

Nabaituko dot zelan dagoanoge goxoan
irriparra españetan,
ta bere ointxo txiki-zurizkak gora-goraka
zoriontsu jolasetan.

Eta gaxoak bere esku tximur-zimel ta latzaz
malko bi kendu zituan;
ta ixil-ixilik lengo bidetik mendian-gora
negar ta negar zan juan.

Biotza miñez exerita antxe arri-gaiñean
nintzan oldozkor geratu:
EUZKERA AMAREN zori gaiztoa gogoratzean
ezin iñola alaitu.

## Euskeraren negarra

Karmel 12 (1962 ) 64-68

Udabarriko goizalde gozo ta diztikorra,
alai ta garbi Gorbea;
bere gallurran nago bakarrik beruntz begira
amets gozotan barnea.

Dana da bertan alaitasuna, zorun-eztia
gentza, soñua, bizia;
guztia dager apain-apañez pitxi ederrez
orlegiz yantzi-yantzia.

Txoritxo polit, bizkor-alaiak txioka dabiltz
abes gozoak abesten;
beko muñoan artzai yatorrak oyu-txistuka
artaldetxoak zainduten.

An be-aldean baserritarrak baratz-solotan
gentz ederrean lanean;
eta arditxoak bedarra yanez euren izkeran
“be-beka” pozik larrean.

Zenbat ederkun eta anditasun ikusten dodan
neure begien aurrean!
Zenbat oroipen alai-pozgarri piztuten diran
ene biotz-barrenean.
Ta nor ete da basorik-baso negar ta negar
erritik mendi-burura
beko bidetik itun ta goibel antxe datorran
atsotxu zimel, zar ura?

Doi-doiez dator alargun bai litz baltzez yantzita
makillatxo bat eskuan;
musu-azala zimela dauko, bere begiak
beruntz begira malkuan.

EUSKERA AMA da: bere semeak euren erritik
yaurtiki dabe gaxoa;
ta arei igeska erria itxirik negar ta negar
mendi-goietara doa.

Zer jazo yatzu, Euskera maite? -galdetu dautsat-
Zergaitik zagoz ain itun?
Izadi dana pitxi ederrez pozarren dago...
zure gogoa ain illun?

Ez dakuzu ba izadi dana irri-barreka
udabarrian alairik?
Zergaitik ba zu garrai onetan negua ba litz
itun-samiñez yosirik?

Nabaitu dozu gau argietan oztin ta garbi...
lilluragarri ortzia?
Eta mendia lora ederrez, zitori zuriz
apañez dana yosia?

Oartu dozu zelan euzkia agertu oi dan
mendi-ostean?
Zelan diztira ederrak galduz estaldu oi dan
geldi-geldiro gabean?

Nabaitu dozu illargi eder gau-erregiña
izar diztikor-tartian?
eta bere izpi distarritsuak an-or zabalduz
argi egiten ludian?

Ikusi dozu zelan baso ta zelai-muñoak
agertzen diran apainki?
Zelan zugatzak apurka-apurka osto orlegiz
yantziten diran poliki?

Oartu dozu zugatz-gañean txorro-txioka
alai abesten txoria?
t'ega-egaka lorarik-lora yana billatzen
mitxeletatxu alaia?

Aditu dozu artzai yatorra adarra yoaz
santzo-txistuka mendian?
t'ardi apalak zelan dabiltzan alai "be-beka"
bedarra yaten larrean?

Ikusi dozuz neska-mutillak yai-egunetan
erri-zelaitan yolasten?
Ume-taldeak gentz ederrean alai ta pozik
abes goxoak abesten?

Ikusi doruz andra-gizonak bake andian
arto-ereiten soloan?
Atso-agurak gentz edarrean etxe-airream
pozarren karta-yokoan?

Oartu dozu amama zarra, etxe-aurrean
abots biguñez abesten?
Ete ondoan bere illobatxu txiki-polita
seaskatxoan lo eiten?

Nabaitu dozu selan dagoan oge goxoan
irriparra ezpanetan?
ta bere ointxo txiki-zuriak gora-goraka
zoriontsu jolasetan?

Bazter guztiak agiri dira udabarrian
alai-zorunez beterik;
zeu... zeu bakarrik zakust Euskera itun ta goibel
neke-samiñez yosirik.

Zergaitik dagoz goiz eder ontan zure begiak
negar ta malkoz bustirik?
Zergaitik zagoz miñak artuta izadi dana
baitago pozez alairik?

Esan, Euskera, esan bai, arren, zergaitik negar
dagien zure begiak;
azaldu niri zure samiña, esan zergaitik
diran zure min-nekiak.

Nik euskaldunai esango dautset zure barrengo
samin-oñaze zorrotza;
t'euskaldun onak adituko dau bere biotzan
zure deadar mingotza.

Udazkena da, euzko semea, ni gaxo onentzat,
emen nago bai negarrez,
neure semeak nitaz aztuta euren erritik
yaurtiki nabe indarrez.

Nire biotzan ez da pozarik, ez zorionik...
iges egin dan alaiak,
orregatikan nago gaur emen ia il zorian
malkoz bustirik begiak.

Udabarriko alaitasunak ezin iñola
alaitu nire biotza;
nire barruan aspaldi ontan negua da-ta...
ezin dau urtu izotza.

Gau t'egun dakart aspaldi ontan biotz-barnean
kezka latzezko ekaitza,
biotz gaxo au arrak yota lez zatituta dot
itxasoak lez arkaitza.

Kupitu, arren, euzko semea, kupitu nitzaz!
ara nire min zorrotza;
kupitu nitzaz, bestela laster dator nire-gain
ustekabez eriotza.

Zure besarkaz, urtu semea, bular-barruan
dodan neguko izotza;
kupitu nitzaz, arren semea, bestela atera
nire barrendik biotza.

“Yagi eta abil”, seme maitea, aterik-ate
nitzat biotzak batuten,
ekin lanean eten gabe bai nire aldera
suzko guztiak ekarten.

Egin onela t’etorriko yat barriro laster
lengo udabarri alaia,
biotz-barrendik ayenduko da negu illuna
piztu barriro argia.

Nire aldez eiten ba’dozu agertuko yat
alaitasuna barnean,
ta ipiniko dot izadi dana irri-barreka
alai ta pozez betean.

Nabaituko dot gau argietan oztin ta garbi
lilluragarri ortzia;
eta mendia lora ederrez, zitori zuriz
apañez dana yosia.

Oartuko dot zelan euzkia agertu oi dan
mendi-ostean goizean,
zelan diztira ederrak galduz estaldu oi dan
geldi-geldiro gabean.

Nabaituko dot illargi eder gau-erregiña
izar diztikor-tartian,
eta bere izpi dirdaritsuak an-or zabalduz
argi egiten ludian.

lkusiko dot zelan baso ta zelai-muñoak
agertzen diran apainki,
zelan zugatzak apurka-apurka osto orlegiz
yantziten diran poliki.

Oartuko dot zugatz-gañean txorrotxioka
alai abesten txoria,
t'ega-egaka lorarik-lora yana billatzen
mitxeletatxu alaia.

Adituko dot artzai yatorra adarra yoaz
santzo-txistuka mendian,
t'ardi apalak zelan dabiltzan alai be-beka
bedarra yaten larrean.

Ikusko ditut neska-mutillak yai-egunetan
erri-zelaian yolasten,
ume-taldeak bide-ertzean alai ta pozik
abes gozoak abesten.

Ikusko ditut andra-gizonak bake andian
arto-ereiten soloan,
atso-agurek gentz ederrean etxe-aurrean
pozarren karta-yokoan.

Oartuko dot amona zarra goiz-illuntzetan
abots biguñez abesten,
eta ondoan bere illobatxu txiki-polita
seaskatxoan lo eiten.

Nabaituko dot zelan dagoan oge goxoan
irriparra ezpanetan,
ta bere ointxo txiki-zuriak gora-goraka
zoriontsu jolasetan.

Eta gaxoak bere eskuin tximur, zimel ta latza
malko bi kendu zituan...
ta ixil-ixilik lengo bidetik mendian gora
negar ta negar zan juan.

Biotza miñez exerita antxe arri-gañean
nintzan oldozkor geratu:
Euskera Amaren zori gaiztoa gogoratzean
ezin iñola alaitu.

## Gurutz-oñean

Karmel (1980, 1) 74

Gurutze baten dago zintzilik
Jainko-Semea untzez josirik
arnasa gabe;
gaizkille bat lez lapur-artean
erruki barik zugatz donean
eskegi dabe.

Esku ta oiñak josirik, untzez
musu ederra odolez ta autsez
burua arantzez,
gurutzan dago Jainko-Semea
gauza guztien Jaun ta Jabea
oroen barrez.

Itzal baltzetan dago ludia
negar-malkotan illun euzkia,
odei-azpian;
zeru-goietan itun gotzonek
irri-barreka bertan gizonak
zoro-antzian.

Nire obenak, Jainko maitia,
jarri zaitue untzez josia
gurutz-luzean,
asketsi, Jauna, nire gaizkiña,
negartutzen dot gaizki egiña
biotz-barnean.

Asketsi, Jauna ez geio obenik,
artu nagizu arren gaurdanik
biotz orretan;
Zurekin ortxe beti bizteko
amairik bako zeruetako
atsegiñetan.

**Maitasun-egarria**

Olerti (1984, 1983) 273

Umetandikan daroat neugaz
maitetasuna biotz-barnian:
maitasun onen joranez dabil
nire biotza une guztian.

Amets gozoak sortutzen daustaz
maitasun onek biotz-barruan;
maitasun onen kilikilia
nabaitutzen dot neure goguan.

Maitasun ona, garbi-txukuna,
jaungoikozkoa nik daukadana;
Jainkoarentzat bakarrik bait-du
nire biotzak maitasun dana.

Jaungoikoaren billaka dabil
nire biotza amets eztitan;
maitale onen oiñatza dakust
beti alde ta une guztitan.

Gau ta egunez atseden gabe
maitale onen ondoren nabil;
asetuko daun iturri onen
billa ioranak beti narabil.

Maitasunaren egarri naz-da
egarri ori asetuteko,
nire gogoak usoak legez
egaka nai du igon gorago.

Gorago nai du gaxoak igon
maitalearen kabi gozora:

t'ezin egatu, ezin da igon
berak nai leuken tokian gora.

Mundu-loturak dauke gaxoa
estu gogorki lurran artua.
lotura orreik askatu arte
ezin eduki Jainko altsua.

Maitagarri ta bere tarteko
laiño baltz orreik ezin urratu,
ezin du goruntz egaka egin.
Maitearekin ezin da batu.

Nai ta ezin du goruntz iñola,
ezin igitu bere egoak.
Maiteak Berak urratu bear
lotuta dauken kate sendoak.

Une aretan ezti-pozetan
astinduko dauz bere egoak,
t'egaz eingo du Maiteagana.
ta asetuko dauz amets gozoak.

Aurrera, bada, ene gogoa,
bizitza-zear amestan beti:
amets gozotik esnatutzean
ase dagizun egarri ori.

## Orixe

Karmel 12 (1962 ) 59

Il da Orixe!... Eriotz baltzak
dauko illotzik lurpean...
Bere eriotzak samin-ituna
sartu dau nire barnean.

Euskera Ama negarrez dago,
negartzen bere semia;
txikitandikan eskeñi eutsan
osoro bere bizia.

Orixe ona estaldu yaku
illen biztegi barrian;
adiskideak ez dogu berriz
ikusiko ez ludian.

Bere gorputz zar, aul ta makala
iruntsi dau lur gosiak,
arren janari biurtu dira
bere azur-gorpuzkiak.

Gogoa baiña, edur antzera,
ederzuri ta garbia,
zeruan dago zorun-zorunez
aintzazko izpiz betia.

Kistar ona zan... danentzat anai,
adiskide ta ongille;
Jaungoikoaren lege santuen
ben-benetako zaintzaille.

Itz-egitetan bere erriaren
seme maitale zintzua,

euskal oitura zar ta garbien
aldezle trebe gartsua.

Agur, ORIXE!... Ziurki Jaunak
Beragaz zaukaz zeruan...
Orra arte gu be ibilko gara
zure bidetik munduan.

## Urrutiko agurra

Olerti (1984, 1983) 215-216

Euzkalerria neure aurtzaro zorioneko kabia:
zu zara nire zoragarria, zu nire zorun-eztia;
zu zara nire barruko puzka, amets zorakor-maitia;
goizaldeko izar, alai-ederra, argi diztikor-bizia.
Euzkalerria neure aurtzaro zorioneko kabia.

Aspaldi onan orri igarra lez urruti nabil zugandik;
ordutik ona nire biotzak ez du aurkitu zorunik.
Ordutik ona ez dot izan nik biotz-barnean alairik,
ezta ikusi zure irripar maitekor-samur-goxorik.
Aspaldi ontan orri igarra lez urruti nabil zugandik!

Gaur baiña EUZKADI, bertsoz jantzita seme leialen antzera,
nire biotza zugana doa, zuri agur egitera.
Pozez urturik egada zoliz, eztitan zure aldera,
barren-barrendik maitasun biziz ta gogoz agurtzera.

> Euzkalerria, ene sorterri,
> eder-goxo ta maitia;
> biotz-biotzez maite zaitut nik,
> zaralako gelgarria.

Naiz urrun bizi beti zaukat nik neure begien aurrian,
ta maitasuna beti dot zutzat neure gogo-barrenian;
zure irudia txikitandikan irarrita biotzian.
Antxe daroat alai ta pozez gorderik une guztian.
Naiz urrun bizi beti zaukat nik neure begien aurrian.

Beti nago ni gogapen gogoz zugan Aberri pentsetan.
Egun argiz ta gabetan bardin beti zugan ametsetan.
Biotz-barrendik maitsun biziz maite zaitut nik benetan.
Beti nago ni gomuta gozo zugan Euzkadi pentsetan.
Beti zu nire biotz-barruan bai egunez ta gabetan.

Zugandik urrun bizi-bearra bai atsekabe aundia.
Bai dala ziñez negargarria ezin ikusi erria.
Zelan leiteke zu ikusi gabe nik luzaro irautia?
Errukarria Aberritikan urrun bizi dan semia.
Zugandik urrun bizi-bearra bai atsekabe aundia!

Ederrak dira zure basetxe polit, zar eta zuriak,
ederrak baita zure ortzea, iturri eta ibaiak.
Ederrak dira zure arezti, baso, mendi ta zelaiak;
ta pozgarriak beko larreko artzaien txistu zoliak.
Ederrak dira zure basetxe polit-zar eta zuriak.

Euzkalerria, ene sorterri,
eder-goxo ta maitia;
urruti eta maiteago zu
zaralako gelgarria.

Euzkalerria: zu zara nire maitasun-gozo-eztia;
zu zara nire poza, zorun eztia, neke-alditan alaia;
zu zara nire udabarriko egun sentiko argia.
Mendi-ostetik geldiro-samur agertzen dan eguzkia.
Euzkalerria: zu zara nire maitasun gozo-eztia.

Nire biotzak bular-barrendik iges dagist gaur zugana,
bere beroa orain ta beti zutzat bakarrik da dana.
Zugandik bizi naiz, ez da... bizi-bearra au lana!
Noz ikusiko zaitut barriro ene Aberri laztana?
ire biotzak bular-barrendik iges dagist gaur zugana.

Euzkalerria, ene sorterri,
eder-gozo ta maitia;
urruti eta maiteago zu
zaralako gelgarria.

Izan betiro Eliz Amaren zaitzalle benetakoa,
Jaungoikoaren lege garbien aldezle trebe-zintzoa;
Izan betiro sinismenaren aitorle leial-osoa;
LEGE ZARRAREN gordelekua ta maitale egizkoa.
Izan betiro Eliz Amaren zaitzalle benetakoa.

Arren ez aztu zure koroiko pitxi jori dan izkera,
zeure asabak maitasun aundiz itxi eutzuen EUZKERA.
Zaindu ta gorde biotz-bernean zure izate ta izakera,
bestela laster jausiko zara ondamendi ta leizera.
Arren ez aztu zure koroiko pitxi jori dan EUZKERA.

Piztu ba piztu zure barruan itxaroaren gar-sua;
begira an goian ego-zabalik MIKEL AINGERU santua.
Izan betiro euzkal oituren egizko gorde-lekua,
mundu guztiko bureztun-pitxi eder-diztikor iaiua.
Piztu ba piztu zure barruan itxaroaren gar-sua.